

HARRERA Proiektua



ZER MODUTAN EGON GAITEZKE PRESENTE?

Harreran presente egoteko bi modu aurreikusten ditugu: batak etengabeko bizikidetzan eskatzen du, eta besteak, ez.

Bi aukeretan, adingabearen zaintza formalizatzen duen administrazio-ebazpen bat dago, harrerak irauten duen bitartean, Nafarroako Gobernuaren laguntza ekonomikoa eta Harrera taldearen laguntza teknikoa.

ELKARBIZITZADUN HARRERA

ZER DA?

Etxea izatea, espazio egonkorra eskainiz, afektuarekin, kideatasunarekin eta segurtasunarekin.

ADIBIDEZ

16 urteko pertsona bat hartzen dut eta adin-nagusitasunera iristen da. Zer gertatzen da une horretan?

- Harrera luzatu daiteke, baldin eta inplikaturako pertsona guztiak ados badaude.
- Hartutako pertsonaren zaintza, administratiboki bertan behera geratzen da 18 urte betetzen dituelako eta jada adin nagusia bilakatzen delako.
- Nafarroako Gobernuaren laguntza ekonomikoa 21 urtera arte luza daiteke, elkarbizitza, nolabaiteko jarraipena eta harrerako pertsonak ikasketak egitearen mende. Adin horretatik gora, goi-mailako edo unibertsitateko ikasketak direnean.

ETENGABEKO ELKARBIZITZARIK GABEKO HARRERA

ZER DA?

Laguntzea ez da beti elkarrekin bizitzea. Bertan egoteko modu honek zure denbora eskuragarrian hartzea dakar: arratsaldeetan, asteburuetan edota oporretan.

ADIBIDEZ

14 urteko seme bat dut, Bilalekin klasera doana, babes-sistemaren baliabide batean bizi dena. Ni, erreferentziazko pertsona bezala, astearteetan eta ostegunetan, biek saskibaloiko entrenamendua dutenean, Bilalek nire etxean bazkaldu dezan eskaintzen dut, gure familiarekin, eta, ondoren, entrenamendura ermatea. Honen ondoren, bere erresidentziara eramango dut. Era berean, asteburuetan, partiduetako joan-etorriez arduratuko naiz, eta Bilalek gure familiarekin igaroko du eguna.

Ni, bakarrik bizi naiz, eta mendia maite dut. Konpromisoa hartzen dut Hassan astebururo nire etxera etor dadin, gaua igarotzea, eta jarduera honetaz eta eguneroko bizitza partekatzeaz elkarrekin goza dezagun.

Fatimaren erreferentea naiz asteburuetan. Udan, oporretan joaten naiz Peñiscolara familiarekin, eta Fatima gonbidatzen dut gurekin etor dadin.

HARRERA PERTSONA/FAMILIA IZATEA ERABAKITZEN DUT, ZER EGIN BEHAR DUT?

Jarri harremanetan gurekin. Deitu, WhatsApp bat bidali edo Instagramen idatzi. Aurrez aurreko hitzordu bat ezarriko dugu, prozesua zehatz-mehatz azaltzeko eta, hala erabakitzen baduzu, familia-harrerako eskaera bat betetzeko.

Zuen ondoan egongo gara, erabaki hau hartzeko behar duzuen denboran, edozein dela ere.

Ondoren, behar duzun guztian lagunduko dizugu hurrengo urratsari begira, hau da, Nafarroako Gobernuak egingo duen egokitasun-balorazioari begira.

Harrera formalizatu ondoren, bertan jarraituko dugu, gutxienez 12 hilabetez.